

Labirintoaren Arkitekturak

(Labyrinth Architecture)

Zulaika, Joseba

Center for Basque Studies. Univ. of Nevada, Reno. 2322 Reno.

Nevada 89557-2322

zulaika@unr.edu

Jaso: 2012.06.08

BIBLID [ISSN: 1137-4454, eISSN: 2255-1050 (2012), 27; 113-125] Onartu: 2012.11.11

Ausartuko bagina gure arimei dagokigun arkitektura izatera, idatzi zuen Nietzschek, labirintoak beharko luke izan gure modelu. Eta labirintoaren erdigunean, hantxe Minotaurora. Labirinto-garaiek ez dute eskatzen tenplu Grekoen harmonia, hondamen eta torsioena baizik. Horrela dira egoki Bilbon Gehriren arkitekturazko tortsioak eta Serraren eskulturazko elipsiak. Hauek ondo kokatzen dira Bilbok dituen plaza eliptiko eta oboidezko eskulturen inguruetan. Ez borobilaren formak, elipsiarenak baizik, bereizten baitu Bilbo modernoaren hiri-geografia.

Giltza-Hitzak: Bilbao. Aresti. Arkitektura. Labirintoa. Gehry. Serra. Minotaurora. Mirariak.

Si nos atreviéramos a hacer una arquitectura acorde con nuestra alma, escribió Nietzsche, nuestro modelo sería el laberinto. Y en el centro del laberinto, el Minotauro. Las épocas de laberintos no requieren la armonía de los templos griegos, sino la de la destrucción y la torsión. Por eso son adecuadas en Bilbao las torsiones arquitectónicas de Gehry y las elipses esculturales de Serra. Ambas se acoplan perfectamente a los entornos de plazas elípticas y esculturas ovoideas de Bilbao, ya que no son las formas redondas, sino las ovoideas las que distinguen la geografía urbana del Bilbao moderno.

Palabras Clave: Bilbao. Aresti. Arquitectura. Laberinto. Gehry. Serra. Minotauro. Milagros.

Si nous osions faire une architecture en accord avec notre âme, écrivit Nietzsche, notre modèle serait le labyrinthe. Et au centre du labyrinthe, le Minotaure. Les époques de labyrinthes n'ont pas besoin de l'harmonie des temples grecs, mais plutôt de la destruction et de la torsion. C'est pourquoi les torsions architecturales de Gehry et les ellipses sculpturales de Serra conviennent si bien à Bilbao. Elles s'adaptent parfaitement à l'environnement des places elliptiques et aux sculptures ovoïdes de Bilbao, car ce ne sont pas les formes rondes, mais les formes ovoïdes qui caractérisent la géographie urbaine du Bilbao moderne.

Mots-Clés : Bilbao. Aresti. Architecture. Labyrinthe. Gehry. Serra. Minotaure. Miracles.

“Nire arima ez dago mirari baten zain,” idatzi huen, Gabriel. Baina entzun ezak zer aldarrikatzen duen *New York Times*-eko Herbert Muschamp arkitektura kritikoak egunkariaren igandeko magazinaren azalean: “Oraindik ere mirariak gertatzen direla diote, eta mirari handi bat hementxe ari dela gertatzen. Izan al zara Bilbon? Arkitektura zirkuluetan, galdera *shibboleth* baten pasahitz ezkutua bihurtu da. Ikusi al duzu argia? Ikusi al duzu etorkizuna?”¹.

Baina zer mirari arraio? galdezka hago. Etor hadi lehenik beste behin Bilboko downtown-era, egin ezak bidea Gran Vian zehar Plaza Eliptikoraino, eta handik har ezak Alameda Rekalde edo Iparragirre kalea. Han agertuko zaik errekaldean Gehryren Guggenheim eraikin zehar-argitsua, bere forma bihurriak titanioz estaliak, Ibaizabalen ondoa jo duen azken ontzi herratua. Begira itzak kareharrizko bloke ortogonalak ardatz ematen jira-biraka ihes egin nahi duen eraikinaren forma mugikorrei. Deustuko Unibertsitatearen aurrez aurre dagoen kristalezko, titaniozko eta harrizko forma zorabiotsuek, arrosaren itxura teilatutzat, iman batek bezala harrapatuko haute. Ikus itzak labirintoaren eraginak, haren forma eliptiko, oboide, limurkorrak, *tortsio* gauzatuak. Hogeita hamabi mila metro karratu bihurgunetsu dituk, konputagailuz diseinatuak, infinitu matematikoak sortzen dituzten bira konplexuetan. Munduko arkitekturari ikono bihurtu den egoitzak Bilbo adierazten dik. Bere egitura kizkur eta bihurgune okerrek gauzatu ditek hiriaren arragoa; ikuslearen paisaia subjektiboa amaigabe moldatzen duelarik. Bilboko *miraria* duk.

Gehryren katedralean sartzeko harmailetan behera joan behar duk lehenik, hire Arantzazun bezala. Utz ezak alde batera Koons'en lore-eskultura and jaits itzak eskailera zabalak, pasa ezak sarrerako ate kristalezkoa, eta sar hadi atrio distiratsura, berrogeita hamabost metroko altueraz, ibaiari begira, sabaitik datorren argiz betea. Atrioaren aurrez aurre aurkituko duk “Arrain” galeria, hogeita hamar metro zabal eta ehun eta hogeita hamar metro luze, La Salve zubipetik iragan ondoren bestaldeko dorrea besarkatzeraino. Galeria honetan dituk Serraren burdinazko eskultura egongaitzak, barnean harrapatzen hauten eraikuntza tortsionatu erraldoiak, museoan ezkutuan gordetik dagoen labirintoa.

Baina zein da benetan Bilboko Gehryren gertakizuna?, galdezka hago oraindik. Hiri postindustrial hondamendiz beteak, hire Bilboko “infernuak” urbanizatzeko orokor bat behar zian eta horrela egin dituk aireportu eta metro berriak Santiago Calatrava eta Norman Fosterren eskutik, Euskalduna Jauregia Federico Soriano eta Dolores Palacios-enetik, Abandoibarrako Dorreak Araka Isozakik diseinatuak, Sheraton Hotela Ricardo Legorretak, Deustuko Unibertsitateko Liburutegia Rafael Moneok, Euskal Herriko Unibertsitateko Auditoriuma Alvaro Sizak. Hire Zorrozaurre hura ere, “Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan”², orain hondamendia duk baina laster Venezia bihurtzekoa duk, Zaha Hadid arkitekto irakiarraren eskutik.

1. Herbert Muschamp, “The Miracle in Bilbao”, *New York Times Magazine*, Sept. 7, 1997.

2. Gabriel Aresti, *Obra Guztiak*, (Donostia: Kriselu, 1976), I, 450.

Hain harrigarriak izanik ere, eraikuntza eta proiektu hauek ez ditek halere Muschamp profetaren aldarrikapena guztiz bereganatzen: “Miraria Bilbon!” Honetarako Muschampek idatzitako beste zerbait kontuan hartu beharra zegok. Arratsalde batez, hotelean notak hartzen ari zela, leihotik begiratu omen zian eta emakume bat bakarrik ikusi kalean “jantzi zuri luze bat zera-mala, eta zapata zuriak, eta eskuko poltsa perlazkoa.” Eta bere buruari galdetu ondoren emakumeari norbaitek huts egin ote zion, eta geroxeago joana zelarik, erantzuna aurkitu zian:

Zergatik ezin lezake eraikuntza batek horrelako une bat bereganatu? (. . .) Bat-batean konturatu nintzen pentsamendu horren zergatiaz: horrelako eraikinetik etorri berria bainintzen. Eta konturatu nintzen etorri berria nintzen eraikuntza hori *Marilyn Monroeren berraragitzea* zela.

Muschampek honela jarraitu zian: “Aktoresa eta eraikuntza nire memorian parekatzen dituen haxe da: biak askatasun estilo amerikar baten lekuko dira... limurkorra, emozionala, intuitiboa eta exhibizionista”³. Bere gona airean, Marilynnek utzi zuen irudi ikoniko ura bisualizatzen ari zuan idazlea.

Zer deritzok: Marilyn Monroe arkitekturari bergorpuztua! Marilyn Begoñako Ama Birjina berria! Marilyn labirintotik atera dezakeen haridun Ariadne berria! Marilyn eta Gehry biak psikoanalista beraren ohean etzan omen zituan. Eraikinak, analistaren oheak bezala, mila modutako irudiak sortzen dizkik: “Txoria da, hegazkina da, Superman da. Ontzia da, alkatxofa da, arrosaren miraria da”⁴. Marilyn bostehun liburutik gora idatzi dituk, eta filmak, antzerkiak, telebistako dokumentalak, operak, dantzak eta abar kontaezin. Baina, Bilboren zain egon duk, bere tenplua izan zedin. “Mirarizko gertakizuna”, bukatu zian Muschampek, “erromesaldia egin dutenen ikuspegieta pizten den optimismo bitxia da.”

Trauma, Dante, Miraria

Bilbora itzultzean, nire balaunaldikook zaila dugu Arestiren presentzia ez kontuan hartzea. Haren “Bilboko infernuak” hemen baitago oraindik, nahiz eta beste Bilbo batean bizi izan orain. Arestirekin zenbait kontu garbitzeko ordua da agian. Haren gorputz biluzia maldan behera zihoan bitartean, aitarren harrizko etxea defendatu zuen hemen. Hementxe, Bilbon, berpiztu zuen miragarriki euskarazko hitza, euskal literaturaren paradisu berria. Orain, “mirariz” beteriko Bilbo honetan, labirintoari forma harrigarriak emanez, Arestik euskarakin egin zuena arkitekturarekin berregin du Gehryk: etxe zaharra harriz eta titanioz eta labanaz defendatu, euskal hiriaren pizkundera aldarrikatu.

Arestik gogoko izango zuen jakitea Gehryk leku berezia diseinatu zuela bere Bilboko maisulanean, “kaperak” deitu zioana, margolan baten gordegailu

3. Muschamp, “The Miracle in Bilbao,” 54. Azpimarra erantsia.

4. Muschamp, “The Miracle in Bilbao,” 54.

izan zedin. Margolan hori Picassoren *Guernica* zen. Arestik idatzitakoa da, ez bakarrik “Haritz bedeinkatua/ adoratu nuen”⁵, baita ere: “Eta hi,/ Gernika,/ ene ebanjelioa/ haiz”⁶. Gernika: *traumaren* lekua. Gehryk Gernikako trauma nahi zuen jarri bere eraikinaren erdi-erdian.

Marilynek ere bazekian *Guernica*-z: bere gizon Arthur Millerren ondoan zegoen, bere Hollywoodeko karrera arriskuan jarritz, Miller komunista sinpatizatzaile gisa 1956an MacCarthyren komitearen aurrera deklaratzera deitua izan zenean. Millerren erru bakarra Espainiako gerra zibilean errepublikarren alde egotea zen; Millerren bi lagun min Espainiako gerran faxzisten aurka borrokan hil ondoren, berak ere parte ez hartu izana bekatu bat bailitz zerman. *Guernica* zen, ordurako New York-eko MoMA museoan zintzilik, errepublikarren eta haien zaleen enblema, Miller eta Marilyn barne.

Oraindik ere mirariak gertatzen direla diote... Marilyn Monroe berrargitua! Ikusi al duzu argia? Ikusi al duzu etorkizuna? Arrosaren eta emakumearen miraria! Arestiren poesian bada denbora mitiko bat, behin baino gehiagotan aipatzen duena: “Danteren edade honetan”⁷. Danteren obran *errealismo mimetiko*a aipatu izan ohi da eta agian Marilynen bergorpuzte arkitekturazkoak errealismo hori errepikatzen du. Danteren errealismoan paradoxa hau ikusi izan da: benetako pertsonaien izaki oinarritzkoak betiko finkatuak agertzen direla haren idatzietan. Auerbach-ek honi *figurazko pentsamendua* deitzen zion, zeinean mundu honetako gertakizunak beste mundu zerutiarrean betetzen baitira. Danterengan, mundu honetako figurek beren ezaugarri historiko *errealak* gordetzen dituzte (ez jada nortasun sinbolikoak). Muschamp posmodernoak ere, ausarki, ez du erabiltzen Marilyn sinbolo edo alegoria gisa, figura historiko gisa baizik, horrela “figurazko pentsamendu” delakoaren adierazpen eginik. Danteren Beatrizek bezala, Muschampen iritzian Marilynen bizitzak “ez du bakarrik bere burua aditzera ematen, beste bat ere aditzera ematen du, iragarri eta baieztatu egiten duena, hemen eta orain, bere errealitate konkretuaren boterearekiko aurreiritzirik gabe”⁸. Bi munduen arteko lotura ez da logikoa edo kronologikoa, ikuspegi estetiko zabalagoan gauzatu dena baizik. Danteren poesian metaforak ez dira apaindurak, konkretzioa behartzen dutenak baizik, eta bere *metamorfosiak*, Gehryren arkitekturarenak bezala, ez dira aspaldiko ipuinak, baizik eta orain gertatzen ari direnak, egungo errealitate dira, “bizirik dagoen edonor gizonaren ezkutuan metamorfosia egon baitaiteke: zeinek baieztatu ezin daitekeela suizida bihurtu ahal?”⁹. Beatriz eta Marilyn ez lirateke izango, beraz, artistaren urruneko edertasunaren ameskeriak; figura *errealak* dira artistaren amodioaren boterepean errebelazio bihurtzen direnak, irarkule eta ikuslearengan errepikatzen direnak:

5. Aresti, *Obra Guztiak*, I, 192.

6. Aresti, *Obra Guztiak*, I, 164.

7. Ikus adibidez, Aresti, *Obra Guztiak*, II, 328, 378.

8. Erich Auerbach, *Mimesis*. Princeton: Princeton University Press, 1953; 191. Willard R. Trask-ek ingelesera itzulia.

9. Auerbach, *Mimesis*, 555.

[...] *daimon* Beatrizek [Marilyn “sorginak” bezala] hasieran zena izaten jarraitzen du beti, gizaki partikular bat, eta esperientzia guztiz pertsonala eta gertagarria; zentzuen xarma salbamenaren lana aurrera ateratzeko gertatzen da, eta Amodioa bera da gizona Jainkoaren ikuspenera altxatzen duena... Hemen egia errebelatua eta haren forma poetikoa [arkitekturazkoa] bat dira.¹⁰

Horrela, Dante eta Gehryk iratzartzea adierazten dute; euren lanek konjuru baten antza dute; gertakizunen oraingotasuna dela eta, arte-mimesiaren boterearen lekuko dira; biak tragedia baino harantzago doaz, ondo hasi eta gaizki amaitzen diren istorioei bira eginez giza *komedia* ikusi arte.

Baina Muschamp arkitektura kritikoak gauza bat ez zuen hartu kontuan: Bilbo bera. Ez zuen erreparatu Bilboren apokalipsia Gernikan gertatu zela, eta hiriarren ezkerreko hondamendiaren esanahia, are gutxiago ikusi zuen hiriarren “mirariak” bilbotarren “maldan behera” doazen gorputzetan grabatuak daudela. Bertakoekin hitz egitea ahaztu zitzaion kritikoari eta ez zen ohartu zein neurritan Bilbok behartu zuen Gehryren eraikina mirari izatera. Ados gaude Muschampekin dioenarekin: mirakulua *gertatzen ari da* Bilbon. Mirariaren nozioa bera, hau da, lege naturala hausten duen “seinale” delakoa, lotsakizuna besterik ez da modernian. Teologian, miraria ohiz kanpoko da, Carl Schmittek bere pentsamendu politikoa “salbuespen egoera” gisa teorizatu zuena. Baina Rosenzweig eta Benjaminentzat mirariaren esanahia ez da salbuespen egoera, honen suspentsioa baizik. Eta mirari horrek hain zuzen traumarekin du zerikusia, Rosenzweig and Benjamin-ek *pentsamendu berria* gisa seinalatzen zutenakin¹¹. Historizismoaren hondamendiaren ondoren ere “mirariak” hitzegin daitekeela uste zuten autore horiek. Horretarako, lehenaldiaren testigu sinagarriak behar ziren: mirariak profeziarekin zuen harreman hestua, iragarritakoa historian betetzea baitzen mirariaren froga. Autore horien pentsamendu berriak “iraganaren izaera bera eta testigantza historikoaren izaera berpentsatzea”¹² behartzen gaituzte. Pentsamendu berri hori profeziaren pareko da eurentzat: bizitzaren osagabetasunari eta funts herrenari, hutsunez beterik dagoen errealitateari, arreta berezia dion pentsakera.

“Pentsakera zaharra”ren eta “pentsakera berria”ren arteko desberdintasuna honetan datza: “Gorabeheran dagoen iraganaren osagaiak *trauma* baten egiturazko estatusa hartzen du pentsamendu berrian; zentzuren batean, inoiz osorik gertatu ez zen iragana da eta ondorioz orainean behin eta berriz errepikatzen ari dena, hain zuzen eraginaren zori gisa, norberaren munduan egotearen sintoma-tortsio bezala”¹³. Gernikako belunaldiko idazle eta politikoak iragana trauma gisa bizi izan dute nahitaez. Euren testigantzak zentzu horretan ziren “profetikoak”; alegia, konturatzen ziren euren arte eta

10. Erich Auerbach, *Dante: Poet of the Secular World*. Chicago: University of Chicago Press, 1961; 100.

11. Eric Santner “Miracles Happen: Benjamin, Rosenzweig, Freud and the Matter of the Neighbor.” In Slavoj Žižek, Eric L. Santner, and Kenneth Reinhard, *The neighbor: Three Inquiries in Political Theology*. Chicago: The University of Chicago Press, 2005.

12. Santner, “Miracles Happen”, 86

13. Santner, “Miracles Happen”, 126.

militantzia bitartez ezin zutela gizarte eta ezagupenaren azken errealitatea atxiki. Iragana ez zen eurentzat zerbait ospatzea edo erromantizatzea merezi zuena. Iragana nahitaezko errealitatea zen. Cesar Vallejoren hura: “Espainia, kendu ezazu nigandik kaliz hau”, Oteizak haren oroitarrian jarritako hitzak. Oteizak bezala, Arestik ere idatzi zuen gurutzatuaren oihartzunarekin: “Herri honi/ neurk, honek/dena (naizena)/ eman diot”¹⁴. Euren testigantzek “sintomaren”¹⁵ izaera berezia zuten.

Gehryren *miraria* Gernikako belunaldiaren “mirari” hauen bizkarretik etorri da, haien *Guernica* enblematikoaren traumatik, haiek galdutako fede eta izakeren zauritik, eta halere haien demoniozko egari uko ez egitetik. Arestik *Maldan behera* hasierako epigrafeetan Gurutzatuarekin eta Nietzscherekin bat egiten zuen. Oteroren lehen poema liburuaren izenburua “Kantika Espirituala” zen, krisi erlijiosoak komunismo ateora eramanez aurretik. Angela Figuerak erditu zuen haurra ez zen izan bere gogokoa: “Baina ezin nuen ezer egin. Heriotza agertu zen./ Garrasika eskatu nion Jainkoari. Garrasika eskatu nuen. Baina alferrik izan zen./ Kain eta Abel erditu nituen. GERRA erditu nuen”¹⁶. *Edertasun Krudela* poema liburua argitaratu zuen gerra ondoren, haren belaunaldiko antinomia erlijioso eta politikoen lekuko. Oteizak geroago bere “theomakiak” idatziko zituen, jainkoaren aurkako borrokak eta biraoak. Nietzscheri eta Unamunori jarraiki, “Jainkoa hila da” zen agindu berria. Kristautasun egiazalearen betebeharra besterik ez zen ateismoa.

Belaunaldi hark ez zuen moralismo errukitsua edo humanismo autoatsegina aldarrikatu. Ez zioten uko egin gizatasunaren izakera demoniatsu garratzari. Figuerari aingeruek beldurra ematen zioten: “Jauna, gorde itzazu aingeruak zurekin. Niretzat garbiegiak dira. Beldurra ematen didate./ . . / euren begiak, negarrik ez darienak, izugarriak dira.” Oterok ere, Arestik bezala, aingeru eroriaren ezina ikusi zuen, bere *gizona* “katez lotutako hego handiko aingerua”. Minotauroa Ariadneren labirintoan: *bilbo* ezpataren hegoak eta *bilbo* girgiluen kate artean harrapatuak, tentsio horretan hurbildu ziren eromena, suizidioa, maritiriora, testigantzen egia segurtatu nahian. Haien gorputzak galera eta porroten haragizko artxibo bihurtu ziren. Oterok eroetxe psikiatrikoetan egon zituen egonaldiak. Arestik, “fede krisia ikaragarrian” murgildurik eta barkamena eskatuz ofenditutako edonori, eroturik amaitzeko beldurra aitortu zion Juan San Martini¹⁷. Mirandek Gabon gaua aukeratu zuen suizidatzeko. Oteiza tiroka hasi zen erietxean erdi eroturik bere emaztea hil zen egunean. Belaunaldi haren gorputzetan testigantza *ero* hura gertatu izana da Bilboko *miraria*. Hura ez zen erlijiozko edo humanismoko amodio gozoa; hura ahulezian sortutako Benjaminen “botere mesiakinoa” zen edo Badiou-ren Gertakizuna, hiritar arruntak beregan duen unibertsaltasuna. Gizarteak eta egoera politikoak gorputzean sortutako sinto-

14. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 464.

15. Santner, “Miracles Happen”, 127.

16. Angela Figuera Aymerich, *Belleza Cruel*. Barcelona: Lumen, 1958; 32.

17. Iñaki Aldekoa, *Munduaren neurria: Arestiren ahots biblikoaz* (Irun: Alberdania, 1998), 36. Berrogeita bat urterekin hil baino hilabete batzuk lehenago, Aresti berak neuri esana da Bilbon jasandako estres psikologikoak zeramala bera heriotzara.

mak aitortu eta haietan eragiteko ausardia izan zen belunaldi haren miraria. Porrotaren erru osoa Beste nagusi bati bota gabe, norberaren gorputzeko eta gizarteko sintomak behar bezala ezagutzea izan zen euren “errebela-zioa”. Sorkuntzaren presentzia da errebela-zioa, Benjamin eta Rosenzweig-en hitzean “mirari” bat, naturak duen ezkutuko botere semantikoagatik eta giza-kiak duen eraldatze iraultzailerako ahalmenagatik. Tradizio hau laburbildurik, Santnerrek dio: “Mirariak gertatzen dira, euren ‘egia historikoa’ erregistratu ondoren, esku hartu genezakeenean sintomen gainean interbentzioak egin, eta irekitzen duten posibilitate esparruan sartzen geranean”¹⁸. Horrelakoetan mirariak *gertatu* egiten dira.

Gehry, Serra, Oteiza: Bilboko Elipsiak eta Tortsioak

Bilboko espazioaren arazoa ez da labirintoz gehiegi osatua izatea; alde-arentziz, *botxo* bat da hiria, Unamunoren “amazko Bilbo” txikia, batik bat Arestiren poema, “nire aitaren etxea”, kosmos laburtua. “Nahiko bagenu eta ausartuko bagina gure arimei dagokien arkitektura”, idatzi zuen Nietzschek, “labirintoak beharko luke izan gure eredu!”¹⁹. Eta labirintoaren erdigunean, hantxe Minotauroa, labirintoak ukatzen duen erdigune guztiz anbiguoan. Premoderniako pentsaeraren arkitekturak, Descarteseraino, “infinituaren laberintora garamatza. Halako labirintoa baita infinitua; eta beste horrenbeste espazioa; eta beste horrenbeste Jainkoa”²⁰. Nietzschek oihukatu zuen: “Ariadne! . . . *Ni naiz zure labirintoa*”²¹. Labirinto-garaiek ez dute eskatzen ten-plu grekoen harmonia, hondamen eta tortsioena baizik.

Gehryren arkitekturazko tortsioak eta Serraren eskulturazko elipsiak ez dira arrotzak Bilbon. Ondo kokatzen dira hiriak dituen plaza eliptiko eta oboidezko eskulturen inguruetan. Ez biribilaren formak, elipsiarenak baizik, hark bereizten baitu Bilbo modernoaren hiri-geografia. Moyua Plaza da, “plaza eliptiko” gisa ezagutzen duguna, Bilbo industrialaren zabalgunearan ardatza kale nagusian, hiri-sarea egituratzen duen erdigunea. 2011ko Martxoan Plaza Euskadi inauguratu zen Abandoibarran, hau ere oboide formakoa, hogeigarren mendeko hiri eliptikoaren oihartzun formalak hogeita batgarrenean adieraziz. Erdi Aroko Bilbo zaharra *zentratua* da, Santiago elizaren inguruan “zazpi kaleak” ingurune biribil eta itxian; Arriaga antzetzokiak, hemeretzigarren mendeko akaberako eraikuntza gailurrak, zirkulua du solairuaren forma. Hogeigarren mendeko hasieran Bilboren hiri zabalkuntzak, Moyua plaza erdian duelarik, elipsia du oinarritzeko forma; 1920 urteetan Carlton Hotelaren kristalezko areto nagusiak obalo forma du. Zirkularitateak lehentasuna galdu egin du arkitekto eta hiri-plangintza egileen imajinarioetan. Kopernikar iraultzaren

18. Santner, “Miracles happen”, 89.

19. Aipatua, Karsten Harries, “Nietzsche’s Labyrinths: Variations on an Ancient Theme,” in Alexandra Kostka eta Irving Wohlfarth, eds., *Nietzsche and “An Architecture of Our Minds,”* (Los Angeles: Getty Research Institute, 1999), 35.

20. Harries, “Nietzsche’s Labyrinths,” 41.

21. Aipatua, Cathy Gere, *Knossos and the Prophets of Modernism* (Chicago: University of Chicago Press, 2009), 47.

ondoren, izarren mugimenduak ez zirela zirkularrak, eliptikoak baizik (bi guneren ingurukoak), aurkitu zuen Keplerrek. Koperniko aurreko “mundu hertsia” modernia “espazio infinituari” utzi zion lekua. Espazioarekin batera etorri ziren kosmologia eta subjektu berriaren iraultzak.

Hiri mailan plaza eliptikoek gune zentratuei egiten diotena, eskultura mailan Oteizak eta Txillidak hilarri biribilari egin zioten. Esan genezake hilarriak direla kopernikar aurreko estetikaren ikonoak, euren premisa ezinbestekoak zirkulua, itxitura, barne irradatzea eta hutsune formala izanik. 1950ko hamarkada hasieran, Bilbon bizi zelarik, Oteizak, Kubismo, Konstruktibismo eta beste zenbait arte mugimenduri jarraiki, forma euklidiarren desegiten saiatu zen, haien edukiak “husten”. Bilboko udaletxearen aurrean eraikita dagoen bere eskultura (*Variante Ovoide de la Desocupacion de la Esfera*) da saiakera horren adierazpena: esfera zatikatua, mundu biribil kopernikar aurrekoaren haustura erabatekoa. Erdiguneei zioen izuagatik, Oteizak eskultura udal-txe aurreko plazaren ertz batean jarri zuen. “Arrautzaren estetika” izandatu zuen Oteizak bere saiakera ezagunenetakoa, Getariako eleizaren asimetriak eta obal formak aztertuz. Forma euklidearren “desokupazio” delakoan sartzen dira baita ere bere Arantzazuko *Apostoluak* eta, Bilbon bizi zelarik baita ere, bere *Ilargiak*. Formen desegite honek trantsizio historikoa azpimarratzen du: modernia aurreko espazio mugatu eta itxiaren semantikatik modernia pentsakera eta mundu infinitura. Hilarria errepikatu egiten dute Oteiza eta Txillidak beren obretan (bere zenbait lanek izena ere ‘hilarri’ dute, eta Oteizak Sao Paulora bere obra irabazleekin batera bidali zuen testua hilarriez mintzatuz amaitzen da), baina beste dimentsio batetik dute errepikatzen, forma zaharra erabat hautsi ondoren: plano bikoitza hirukoitza egiten da, dimentsio biko irradatzea hirukoan zabaldu, erdigunearen inguruan eratutako zirkulua esfera zatikatu, deszentratu, ireki bihurtzen da. Modernia aurreko subjektibotasunaren lekua erabat hautsi da.

Oteiza eta Txillidaren espazio infinituaren taxutze berriak, Serraren lanean garatuko direnak, ondorio estetiko eta subjektibo esankorrek dakartzate. Freuden psikoanalisi ere, pentsamenduaren “iraultza kopernikar” berria ekarri zuena, subjektu deszentratuaren hizketaren izaera “eliptikoaz” mintzatu zen: hitza baino harantzago, erraz itzuli ezin den inkontzienteko hizkuntza. Lacanek ere aipatu zuen “elipsearen sorrera ez da leku desegokia egia garaien deitzen direnak izena har dezaten. Iraultzak ez du garrantzi gutxiago, ‘zeruko iraultzez’ gainera beste gauza batzuei ere badagokielako”²².

Baina begira Gehryren tortsioei. Psikoanalisiarentzat “sintoma tortsioak” direnak, ez al dira Gehryrenen antzekoak arkitekturarentzat, ahaztezina bihurtzen zaigun gertakizun baten gehiegia eta hutsunearen *sintoma*? Ezintasun eta porrotak —oharkabeko akatsak eta egite konpultsiboak psikoanalisian, krisi ekonomikoak marxismoan— egitura beharkizunak suertatzen dira. Gaur eguneko kultura eta subjektibotasunaren tortsio sintomak agerirazten ditu Gehryren Bilboko egoitzak.

22. Jacques Lacan. *Ecrits*. New York: W.W. Norton & Company, 1996; 979, N 295.

Psikoanaliaren ikuspegian, subjektu eta objektuaren arteko harremana “tortsiozkoa” da²³; ez da lerro zuzenez edo itzultze osoz marra daitekeen harremana, hurbiltze eliptiko, zeharkako, bihurriez baizik. *Bilbo*-ren esanahi bikoitza Shakespearearen ingelesean “ezpata” eta “girgilua” ziren eta esan genezake hiriaren subjektu historikoa koka daitekeela kate eta desira, historia eta askatasun politikoaren arteko borrokan. Pentsakera dialektiko horretan, osotasun idealistak alde batera utziz, tortsioaren nozioa da egokiena, etenaldi eta integratzea zilegitzen baitu, ideia berrien sorrera, zeinean subjektibotasunak forma okertuak hartzen baititu eta “egjara... ez baita bide bihurrietan zehar besterik iristen”²⁴.

Gehryren Bilboko arkitekturak girgiluen hiria ezpata askatzailearen hiriarekin aurrez aurre jartzen du, bi ahoko ezpata: lekua eta indarra, sinbolikoa eta erreala. Bat bitan banatzen da. Ezpataren zastadatik bakarrik etor daiteke ezer berririk: lehenaren eta orainaren ondoratzea, lege zaharraren deuseztatzeaz berriaren sorrera. Prozesu beraren bi sorgune. Bilboren antzaldatzea ulertzeko sinbolismoaren lehentasunetik haratago joan beharra dago, erreala-iraunkortasunari begiratu behar zaio, galdutakoaren ikuspegitik, subjektua erdibitzen duen desiraren hutsunetik. Haustura/sorkuntza prozesu horrek gauza iheskorak, osotasun deseginak, inpase historikoak sortzen ditu: plano berri batean desagertzean euren izaera betetzen dutenak. Kontrakotasunak desagertzen dituen lekua, leiho eta aterik gabea, barnean ala kanpoan ote dagoen batek ez dakiena: hori da labirintoa.

Arkitektura da, zioen Bataillek, kartzelaren zaintzailea: katedrala, jauregia, monumentua, hilobia. Autoritarioa da, hiriaren superegoa, espektakulu arranditsua. Hiritarren banakako subjektibitatea itxuraldatzen du (Benthamen panoptikoan adibidez). Giza desiren ihes fantasia da. Gehryren arkitekturak ere, Herbert Muschamp eta hainbat turistek aitortzen duten bezala, indartsu ukitzen du ikuslearen pertzepzio eta subjektibotsuna²⁵. Baina Gehryren erakuntzak ez du autoritatea sortzen; “ez dago historia, kultura edo natura kontrolatzearen fikzioan oinarritua”, baizik eta “sinboloaren eta giza subjektuaren bihotzean absentsia edo hutsunea ezagutzen du” eta “hasierako zauri honi aurre egiten dio”²⁶. Arkitektura honek subjektu desiratzaileak sortzen ditu, euren sintoma tortsioak ukitzeko eta luzatzeko gai direnak. “Gu” irabazlearen izpilu litzatekeen arkitektura autoritarioa da Gehryk Bilbon akabatzen duen azken munstroa, Gehry izanik, bere Los Angeleseko etxearekin hasita, “sexu eta gizarte zapalketaren egiturei gehien aurre egin diena”²⁷. Egitura hierarkizatu eta ondo ordenatuaren aurka, Bataillek gogoko zuen eraikuntza azefalo gillotinatu egin zuen Gehryk Bilbon. Oteizak ere zioen bere Arantzauko “apos-

23. Alain Badiou, *Theory of the Subject*, (New York: Continuum, 2009), 124.

24. Lacan aipatua, Badiou, *Theory of the Subject*, 121.

25. Denis Hollier, *Against Architecture: The Writings of George Bataille* (Cambridge: MIT, 1989), x.

26. Dean MacCannell, “The Fate of the Symbolic in Architecture for Tourism: Piranesi, Disney, Gehry.” In Anna Maria Guasch eta Joseba Zulaika, *Learning from the Bilbao Guggenheim*. Reno: Center of Basque Studies, 2005; 36.

27. Aaron Betsky, *Building Sex: Men, Women, Architecture, and the Construction of Sexuality* (New York: William Morrow and Company, 1995), 184.

toluak” nahita egin zituela kasikan burumotzak, gorputz bihurriak indarrean beren hutsarekin borrokan. Gehryren eraikina ere zatikatua da; estaltzen duen titaniozko geruza mehea paper antzekoa da; kristalak arintasuna eta transparentzia adierazten du. “Eskeleto edo grabitate gabeko espazioaren arkitektura da eta ordorior egitura gabeko arkitekturaren ideia bere egiten du, sare gabeko arkitektura”²⁸. Aniztasun eta mugimenduaren arkitektura, “lekua deslekuetzearen bitartez berrasmatzen duena,” “forma gabeko formalismo” gisa azaltzen dena, eta nahiz eta sigi-sagako “mugimenduak forma animatu baina erabat disolbatzen ez badu ere... eskuraezineko egiten du”²⁹. Bilbo ondoren Elciegon, Riscal Markesaren bodegetarako eginiko eraikuntzan, ikusten dugu bete-betean arkitektura honen kualitate ektoplasmikoa, forma bera forma gabezian disolbatzen delarik. Arkitekturaren auto-inmolazioaren aurrean gaude.

Armiarma eta Minotauroa, Arrosa eta Gurutzea

Gabriel, hator hiriaren epizentro berrira, hator Gehryren museo barrura, pasa ezak atrio argiz betez zeharkatua, eta sar hadi Salve zubipeko galerian barne hondoraino. Hor hago eure kabuz Minotauroaren labirintoan. Sar hadi Richard Serraren bost metro alturako altzairu eskultura bihurrietan, 44 eta 276 tona tartekoak, *Denboraren Materia*, eta utz iezaioak hire gorputzari pisu horien astuna sumatzen, zein espazioren zorabioan sartu haizen galdezka. Jarrai itzak egitura horien mehar, zeharkako, irregular, noraezekoak, itxitura eta irtenbide gabeko lekuetara haramatela. Zenbat eta barnerago, gehiago ohartuko haiz hire gainetik altxatzen diren mega-egitura ez-egonkorrez eta okerpean ezkututzen den tentsio eta klaustrofobiaz. Minotauroaren ezkutuko galeriaren baitan hago.

Gogora ezak Nietzsche, amodioaren gatibu hura, “Ariadne, maite zaitut. Dionisos,” idatzi zioan zoroetxetik Cosima Wagnerri. Nietzscheren epigrafea jarri huen hire *Maldan behera* hasieran. Nire *Adanen poema* lehor hura irakurri huenean, ez hain hire gogokoa, “hau guztia Nietzsche duk,” esan hidan. Etsaitu ziren ondoren, minotauroarekin parekatzen zian Nietzschek Wagner, eta haren musika tronoa, Bayreuth, labirintoarekin. Bayreuthen izan huen baita ere Hitlerrek, Wagnerren musikaz suak harturik zegoen gau batez, Francoren alde “Magiazko Suaren Operazioa” erabaki zuena, bere Luftwaffe eskudroiak Gernikarako bidean jarriz. Nietzscheren profezia izugarriak, munduak inoiz ezagutu ez bezalako gerrateak etorriko zirela, Gernikan izango zian hasiera. Gehryk “kaperak” bat jarri nahi zioan *Guernicari* Bilbon.

Minotauroaren zuloan hagoela, agian garaia duk Ariadneri, labirintoaren amoranteari, bere haria luzatuz Minotauroa menderatzen Teseori lagundu zionari, dei egiteko. Kanpoan, museoa eta Ibaizabal tartean, hortxe zegok Louise Bourgeoisin hamar metro alturako *Armiarma* eskultura, amaigabeko amaraun haria iruten. Eskulturak, armiarmaren zortzi altzairuzko hanka luzeekin, zuta-

28. Jeremy Gilbert-Rolfe, *Frank Gehry: The City and Music* (London and New York: Routledge, 2001), 84.

29. Gilbert-Rolfe, *Frank Gehry*, 18, 111.

beak bailiran, eraikuntza bat altxatzen dik, eta bere azpian sartzera eta ibiltzera gonbidatzen hau. Bourgeoisek “Ama” izena jarri zioan bere armiarma eskultura erraldoiari. Galdera duk: Bourgeoisen emakume/armiarmak, etengabe haria ehotuz, askatuko al du Serraren Minotauroa bere burdinazko labirinto bihurritik? Bourgeois eta Serra, Ariadne eta Minotauroa, Girgilua eta Ezpata—hortxe zegok drama mitikoa, Bilboren bihotzean, Marilynren tenpluan.

“Nire aitaren etxea defendituko dut”, izan huen hire formula. Derioko hile-rrian, bizkarrean eraman hindugun arratsalde umezurtz hartan, hire hitzok banatu genizkian jende artean. Txillidak ere Gernikan “Gure Aitaren Etxea” ezarri zian, eskultura hormaren bi zuloak Santimameneri begira. “Egun da Santimamine, benetan egun samine”, kantatu huen hik Laboarekin. Baina aitaren etxeak ez, “Emakume Etxeak” egin zizkian Bourgeoisek: behe partean aldakak, baginak, zangoak, soin ebakiak dituzten eskulturak, eta goi partean buruen ordeztu etxeak. Berak esan zian: “nire gorputza da nire eskultura.” *Armiarma* eskultura bere gorputz sakramentalak duk, gure gorputzak baititugu gure egitazko labirinto arkitekturak. Hik hire *aitaren etxea* eskaini higun, baina sar hadi Bourgeoisen eskultura baitan eta emakumearen etxean hago. Bourgeoisek *amaren etxea* eskaini ziguk: amaigabe iruten ari den Ama, hiria bere gorputz/etxearekin babesten duena. Bourgeoisen beste obra nagusi baten izenburua “Aitaren Hondamendia” duk, zeinean patriarka tiranoa bere haurrek jaten baitute etxeko mahai gainean, ohea ere baden mahaian Armiarma eskulturatik ibaiaren bestalde idatzi zizkian Andres Ortiz-Osesek euskal matriarkalismoari buruzko obrak, halako oihartzuna izan zutenak. Eta ibaiaren bestalde zegok baita hire lagun Oteizaren “oboidearen bariantea” udaletxearen aurrez; bere des-okupazio eta asimetriak “arrautzaren estetika” saiakeran esplikatuz zizkian geroago. Hi ere kexatu hintzen behin: “Forurik eta arraulcerik gabeko/ euskotar ia berri hauengatik/ bozak ez daki minzacen”³⁰. Bourgeoisek arrautza maskulino guztiak hartu eta zorro batean sarturik bere amaraunaren teituan, altziazko zortzi izter luze femininoetatik zintzilik, jarri dizkik; horixe duk gaur egun maskulinitatearen arkitektura patetikoa.

Bourgeoisen armiarma/etxeak bere osagarri betea Gehry'ren “Marilyn Monroeren berrargitzea”n aurkitu zian. Eskulturazko “Ama” eta arkitekturazko “Marilyn”, biak dituk “amazko Bilbo” emearen estetika femininoaren pizkundearen lekuko. Gehryk arrosaren formaz diseinatu zian bere eraikinaren gaina eta Muschampek Marilynren bergorputzte arkitekturari “arrosaren miraria” deitu zioan. Marilynnek arrosa zian bere lorea, bere lagunei arrosa sortak bidaltzen zizkian. Bere senarra izandako Joe DiMaggiok arrosa gorritz eginiko bihotz handia jarri zian bere kriptaren gainean eta bizi izan zen beste hogeitabost urteetan astero arrosak eraman zizkioan Marilynhi hilobira. Millerek “altzaruzko lorea” deitu zioan eta *The Misfits* filme ahaztezin hartan beretzako izena “Roslyn” zuan. George Steer kazetariak ere arrosa hostoak aurkitu zitian haritz zaharraren pean Gernika suak kiskali zuen egunaren ondoren. Picassoren *Guernican* ere gudari hilaren ezpata hautsitik arrosa ernatzen duk. ETAKo ekin-tzaileei ere, agur esatean, beren errautsak arrosaz estaltzen zizkietean.

30. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 130.

Lauaxetak idatzi zian, “Larrosa baten orri gainian/ idatzi zendun ixen maitia.” Eta Oterok: “Arrosa odoldua dakart nire eskuetan/ odolez”. Eta Figuerak: “Nola zaude? Oso ondo, mila esker. Eta arrosa hura? Arrosa hura?” Eta hik galdetu huen: “Maitea, nun zaude?/ Negar egin dute/ larrosek, ez barre”³¹. “Arrosak dira gorriak”, idatzi huen baita ere³². Hire Euskal Herriko zerua oskorria bakarrik izan zitekeean, abestiak zioenez: “Irrintzi bat entzun dugu/ ezpataren aurrean./ Oskorria zabaltzen da/ euskaldunen lurrean.” Ilargia ere gorria huen hiretzat: “Ilargiak zeruan/ laranja gorri bat dirudi/ mundu honetan isuri den odolaren espilu”³³. Brechtek, aldiz, “berdea” ikusi zian “Bilboko ilargi zahar hura”, Lauaxetaren irakurgai zen Lorcak bezala.

Arrosa eta Gurutzearekin Hegelek eginiko metafora zegok filosofia modernoaren bihotzean ere: heriotza eta pizkundera, gurutziltzatzea eta salbamenaren arteko harreman trukatuak. Gurutzea duk errealitatea eta pizkundearen Arrosa, aldiz, “ez da ‘gurutziltzatzearen unibersalizaioa’ besterik”³⁴. Kristautasun apokaliptiko baten ikuspegitik, “bai Hegel edo Blake-ren gan, gurutziltzatzea eta pizkundera azkenean gauza bera dira”³⁵. Hik gutxi bezala ezagutu huen Bilboko apokalipsia: Gurutzea da Arrosa, Gurutziltzatzea da Pizkundera. Desegin tenplu hau, eta hiru egunean...

Garbi utzi huen beti non bizi hintzen, “Bilbo deritzan/ infernu honetan”³⁶. Eta, “Eskribicen badaustazu/ Ba dakizu nun nagoan/ Infernu labanagoan / Deabruaren agoan”³⁷. Hire infernura idatzi diat Gehryren berri hiri eman nahian, baina errepara ezak honek dioena: Bilbo dela bere “paradisuaidea”. Zer deritzok? “Zergatik maitemindu zinen horrela Bilbokin?” galdetu nionean arkitektoari, “esango dizut zergatik” erantzun zidaan, alde egin eta laster bere emaztearekin itzultzeko: “hara hemen zergatik, bera Bilbokoa delako”. Bere emaztearen guraso Panamakoak jatorriz Santanderrekoak zirela esplikatu zidaan; Kaliforniatik begiratu Santander eta Bilbo hiri bera direla beretzako, alegia, eta emazteari dion amodioa eta Bilbori dioena, iturri berekoak baita ere. Hik agian ulertzen diok Gehryri, zeren hik ere hire poesian ezin huen gorderik eduki hire Beatriz, hire “Melitxu Basurtuko/ piku meladua”³⁸, eta hire “Nola maitatzen haunadan, / Meli”³⁹, hari dedikatuz hire *Euskal Harria*, “zuri,/ espainiako andrea/ zimaurretan aurkitutako lili apala/ meli/ zuri”⁴⁰. Eta hire alabak hituen “el poema mas bello, / Aresti,/ que tu

31. Aresti, *Obra Guztiak*, I, 314.

32. Aresti, *Obra Guztiak*, I, 412.

33. Aresti, *Obra Guztiak*, I, 520.

34. Slavoj Zizek, “Dialectical Clarity versus the Misty Conceit of Paradox,” Slavoj Zizek eta John Milbank, *The Monstrosity of Christ* (Cambridge MA: MIT, 2009), 267.

35. Thomas J.J. Altizer, *The Contemporary Jesus* (Albany: State University of New York Press, 1997), xxi.

36. Aresti, *Obra Guztiak*, I, 496.

37. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 52.

38. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 396.

39. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 376.

40. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 12.

jamás escribiste”⁴¹. Santander eta Bilbo arteko harremanak hik ere aipatu hituan: “Burdin-mehatz abandonatuak,/ ene Bilbao tristearen inguruko/ gerri-/koa./ Kantabresak/ gure lurrean/ apupilo”⁴². Apopilo kantrabres hoietako baten ondareak ekarri dik senarra eta arkitektura hire Bilbora.

Kexa eta birao artean izanik ere, Bilboko deabruaren ahoa aukeratu huen bizileku. Estetizismoekin pazientzia gutxi, Oteizari esplikazioak ematen saiatu hintzen:

Baina nik azaldu behar diot,/ esplikatuko diot,/ zer den,/ zergatik bera oraindik ezten/ euskal arimaren zolara heldu,/ gu itotzen garen/ infernu behere honetara./ Gu ezkara hemen lasai/ bizi./ Guk eztugu zentitzen/ paradisu bat./ Dantek ere etzuen holakorik/ asmatuko./ Hau da basatza handi bat./ Hemen aingeruen arimak ere likistuko lirake.⁴³

Bilbori *the tough city*, “hiri gogorra”, deitzen zioek Gehryk. Horrexegatik dik atsegin Bilbo eta bertako hautsikin artean aurkitu dik bere etxerik gogokoena. Ondo konponduko zineten elkarrekin. Hik hizkuntzaz bezala, arkitekturaz berpiztu ziguk hiria.

“Danteren edade honetan/ Euzkadi duk/ Rikardo/ ene gurutzea”⁴⁴. Hire gurutzearen hiltze nagusia euskara gabeko Bilbo huen: “euskara galduko bada,/ erderagatik,/ gal benazate betiko,/ ama,/ ni berarekin”⁴⁵. Baina euskara ez duk hil hire Bilbon, maldan gora ziake. Euskal haurrek gehienek euskaraz ikasten ditok orain eta unibertsitarioek ere gero eta portzentaia handiagoan euskaraz ari ditok: sinesten al didak? Eta hire izena daraman euskaltegian, Bilboko Gran Vian bertan, dozenaka mila ugari saiatu dituk jada hire euskara ikasten, Bilbo elebidun bat oraindik posible dela seinestuz. Zer deritzok? Bilbo ez duk jada “herri baten kontra/ altzatu eta zabaldutako/ hiria”⁴⁶. Gogora ezak hire ametsa: “Gorbeia joateko gutizia sorcen zait barrenean,/ bertan organizeko euskararen salbazioa,/ baina hemen gaceren naiz,/ kale arte honetan,/ milagro baten zai,/ egunero bizarre kenceari ucteko/ naikoa kurajerik/ ez baitdut”⁴⁷. *Milagroaren zain hi ere! Ba gertatzen ari duk. Entzun ezak New York Times: “Oraindik ere mirariak gertatzen direla diote, eta mirari handi bat hementxe ari dela gertatzen. Izan al zara Bilbon?... Ikusi al duzu argia? Ikusi al duzu etorkizuna?”*⁴⁸. Arkitekturaz ari zelakoan, hire Bilboko euskararen etorkizunaz ari zuan. Oraingoan sinetsi beharra daukak, Gabriel: miraria gertatzen ari duk.

41. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 392.

42. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 236.

43. Aresti, *Obra Guztiak*, I, 552.

44. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 372.

45. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 336.

46. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 206.

47. Aresti, *Obra Guztiak*, II, 90.

48. Muschamp, “The Miracle in Bilbao”, *New York Times Magazine*, Sept. 7, 1997.